

**HEZKUNTZA-KOMUNITATEAK EGINDAKO LANA ESKERTU ETA
AITORTZEKO EKITALDIA / ACTO DE AGRADECIMIENTO Y
RECONOCIMIENTO DE LA LABOR DE LA COMUNIDAD EDUCATIVA**

2021-06-16 Vitoria-Gasteiz 16-06-2021

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Sailburua, Alkatea, Odon de Apraiz Ikastola-ren eta Hezkuntza komunitatea-ren ordezkari eta kideok, jaun andreok, egun on guztiok eta zorionak eta eskerrik asko guztioi Hezkuntza komunitatea osatzen duzuen guztioi.

Ikasturte berezi eta zail hau gainditzeko egin duzuen ahalegina ESKERTZEKO antolatu dugu ekitaldi hau. Ikasturte BIKAINA izan da; ikusi eta entzun dugun eskertza nirea egiten dut ere.

Aitorpen pertsonal bat: duela hamar hilabete, abuztu hartan, OSASUN LARRIALDIA deitu behar izan genuenean bigarren aldiz iazkoan, ez genuen uste ikasturte hau hain ondo bukatuko genuenik. Ez genekien ikastetxeak irekita mantentzeko gai izango ote ginen. Ahalegin guztiak jarri genituen, baliabideak ere bai, baina egoera zaila zen. GAUR beste modu batera ikusten ditugu gauzak.

Horregatik, ezer baino lehen, nire zorionik beroena, aurrez-aurreko hezkuntza BIZIRIK mantendu duzelako. Hezkuntzak zein gizarteak, asko zor dizue lorpen honengatik.

Ikasturte honetan, gizarte osoa konturatu da ZER NOLAKO garrantzia eta balioa duen aurrez-aurreko hezkuntzak. Zer garrantzia eta balioa duen gure familia eta gizarte bizitzarako.

Ikasleak ikasgeletan ikustea irudi arrunta izan da betidanik. Baloratzen genuen, bai, baina ez genuen zalantzan jartzen horrela izan EZ zitekeenik. Pandemia iritsi arte. Orain ikusi dugu ZER DEN benetan gure hezkuntza sistema, ZER DEN benetan gure hezkuntza KOMUNITATEA.

Milaka eta milaka profesionalen, ikasleen eta familien konpromisoari esker, ikasturtea AURRERA atera dugu. Ikasgelen %99a irekita egon da.

Haur-eskolak, Ikastetxeak, Lanbide Heziketako zentroak, Unibertsitateak ALTXOR bat dira. Guztion artean eta guztion mesederako sortuak, gizartearen bizkar-hezurra, bizikidetzaren eta etorkizunaren ZUTABE nagusia.

Hoy reconocemos y agradecemos VUESTRO esfuerzo y compromiso. Habéis logrado mantener más del 99% de las aulas abiertas, todos los días, a lo largo de TODO este “curso covid”. Es un resultado final que NO esperábamos hace diez meses, en agosto del pasado año, cuando tuvimos que decretar la EMERGENCIA SANITARIA por segunda vez, y en la que seguimos estando.

La sociedad vasca reconoce este logro de la COMUNIDAD EDUCATIVA, porque una de las lecciones aprendidas de esta pandemia ha sido la importancia de la educación presencial. Importante para las y los alumnos, sin duda, CRUCIAL TAMBIÉN para mantener el equilibrio de la vida familiar, laboral y social. Sois un ejemplo de “auzolana” al servicio de un BIEN COMÚN: la Educación y la Convivencia social.

Tenéis que sentirnos orgullosas y orgullosos. No ha sido NADA fácil. Lo sabéis mejor que nadie. Lograr que alumnas y alumnos hayan podido acudir a sus Centros cada día tiene un gran valor. La educación presencial, además de FORMAR, significa igualdad, colaboración, apoyo; significa sentirse parte de una comunidad, conciliación, vida laboral, familiar y en sociedad. Vuestro compromiso ha garantizado este servicio integral y ESENCIAL.

Amaitzeko, hezkuntza komunitate osoaren ordezkari gisa, ZORIONAK baita zuri ere, Maru, ondo azaldu bait diguzu bizi izan dituzuen gorabeherak, zalantzak eta egonezinak. Inor baino hobeto gogoratzen dut iazko martxoak 8a, igandea, arratsalde, Bilbon, orduko Osasun eta Hezkuntza sailburekin eta bere taldekidekin bilduta. Hartu izan behar genuen erabakia. Bastida itxi eta Gasteizko ikastetxeak itxi. Ondo gogoratzen dut pertsonalki.

Ikasturte honek asko erakutsi digu. Bestak beste, hezkuntza DEN DENOK osatzen dugula: irakasleak eta ikasleak noski, baina baita: Familiak, Garbitzaileak, Gidariak, Atezainak, Zaintzaileak, Administrazioako langileak edota Sukaldariak besteak veste.

Harro egon zaitzekete egindako lanarekin. Ikasleen eta familien ONGIZATEA lortu duzuelako egoera ezezagun, berri eta zail honetan. Denon artean egindako lanaren LORPENA DA beraz.

Bihotzez... zorionak guztioi eta eskerrik asko!